

**Euskal Soziolinguistika VI. Jardunaldia**

***Euskara EAEko Hezkuntza Sistematan:  
Irakurketa soziologikoa***

**Iñaki Martínez de Luna**

**Donostia, 2013-01-31**

# Irakurketa soziologikorako zenbait kontzeptu

→ Sozializazioa:

- Funtzioak eta aldiak.
- Rolak eta arauak.
- Kontrol-tresna.
- Gizarte-Denbora eta Bizitza-Zikloa.

→ Konstruktibismoa.

→ Plangintza eta balioespena.

# Sozializazioa: gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen

Jaiotzean, gizakia ezindua → taldearen abegi eta babesaren menpe.

→ Jaioberriak ez daki inolako hizkuntzarik.

Halere, espezie bezala gizakiak badu ikasteko gaitasuna.

→ Gizakia hazi ahala hizkuntzaz jabetuko da, arian-arian.

Hortaz, gizakiak, behin jaioz gero, taldera birjaio behar du taldekide bihurtzeko.

→ Eta hizkuntza-komunitateko kidea izateko ere bai.

# Sozializazioa: gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen

Sozializazioa modu askotan gauza daiteke: zenbat kultura, hainbat sozializazio mota.

→ Lehen Hizkuntza...

- ...euskara: euskal komunitateko hiztuna.
- ...erdara: erdal komunitateko hiztuna.

*“Nolako Lehen Hizkuntza, halako hiztuna”*


Sozializazioa batez ere prozesu informalaren bitartez; ez horrenbeste ikaskuntza formalaz:

→ Formulazio inplizituak (arauak, balioak) esplizituak bezain garrantzitsuak:

*“Zer ikusi, hura ikasi”.*

# Sozializazioa: gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen

Sozializazioak hiru funtzio motak:



**Hipotesia:**

*“Zenbat eta osatuagoa euskararen sozializazioa,  
hainbat eta handiagoa erabilera.”*

# Sozializazioa: gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen

1. **Kognitiboa:** gizarte osagaiak eta funtzionamendua, arauak...

→ Hizkuntza “bizia” ikasten da, ez akademikoa.

→ Gizarte erabilera zuzena: non / zer / norekin...

...zein hizkuntza, zein aldaki, zein erregistro.

Familia euskaldunetakoak familian ikasi eta, kasu askotan, ikastetxean ere.

Erdal komunitateko hiztunak eskolan, betiere:

→ Familian baino neurri apalagoan.

→ Hizkuntza ereduaren arabera.

→ Ikastetxeko euskaltasun-giroaren arabera.

# Sozializazioa: gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen

## 2. Identifikazioa:

- Taldearekiko atxikimendua eta taldearen kohesioa.
- Norberaren eta taldeko identitatea: “Gu” vs. “Besteak”.
  
- Hizkuntza-komunitate-kide: hurbiltasuna, lotura, konplizitatea.
- Euskalduna naiz.
- Euskaldunak vs. erdaldunak.

Familia euskaldunetan talde-sentimendua errazagoa eta berezkoa, gehienetan.

Erdal komunitateko hiztunak eskolan eta, askotan, familiaren baitan.

# Sozializazioa: gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen

## 3. Afektiboa: Gizakiaren beharrianak asetzeko:

→ Gizarte bizikidetasuna, elkarrekintza, komunikazioa, sentimenduak, afektua eta gorputz ukipena.

→ Ez nolana hikoak, kalitatezkoak bazik.

→ Berebiziko eragina lehenengo sozializazioan: familian, lehen heziketan...

→ Hizkuntzarekiko atximendua:

- *euskara maitea vs. hizkuntza arrotza,*
- *bertako jatorriko hizkuntza vs. kanpoko hizkuntza...*

Familia euskaldunetan talde-sentimendua errazagoa eta berezkoa, gehienetan.

Erdal komunitateko hiztunak eskolan eta, askotan, familiaren baitan.

# Sozializazioa: gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen

4. Beste osagai batzuk: bizitzako norberaren eskarmentua.

→ Hizkuntza-bizipena:

- eroso ala deseroso,
- egoera atseginean ala gozakaitzean,
- gogoz onez ala gogoz kontra.
- erabilgarria ala bazterrekoa...

**Emaitzak:**

→ Hezkuntzan izan ezik, beste egoera eta jarduera guztietan erdara egokiagoa.



# Sozializazioa: “zer ikusi, hura ikasi”

## Sozializazioa,

- Gizarte ordena barneratu: gizarte arauak.
- Dagozkigun rola barneratu.
- Gizarte kontrolaren mekanismo gisa.

## Hizkuntza-sozializazioa:

- Gizarteak ezarritakoari egokitzen zaio hiztuna.
- Adibidez:
  - Euskaldunen arteko gizarte arauak “ezezagunari erdaraz egin”.
  - Gauza garrantzitsuetarako erdarara jo.
  - Euskaraz umeekin eta txakurrekin baino ez.

## Emaitzak:

- Ikasleak gizartera ireki ahala erabilera horretara egokitu.

# Sozializazioa eta hizkuntza-portaera

## Emaitzak:


Ikasleen eskolako erabilerak lotura nabarmena eskolaz kanpoko errealitate linguistikoarekin:

- Familiarekin zein bestelako gizarte alorretakoekin.
- DBH2n erabilerari lotuen dagoen aldagaia “*eskolaz kanpoko jadieretako hizkuntza*”. LMH4n bigarren.

Sozializazio baldintzak ahuldu ahala erabilera behera:


- Herriko euskaldunen proportzioa / Lehen hizkuntza / Hizkuntza-eredua.

## SOZIALIZAZIO OSOA



**Hizkuntza Erabilera**

## SOZIALIZAZIO MUGATUA



**Hizkuntza Erabilera**

# Sozializazioaren iraupena

## Sozializazioa:

- Bizitza osoan zehar eta amaierarik gabea.
- Lehen sozializazioa / Bigarren sozializazioa / Hirugarren sozializazioa.
- Sozializaziorik barneratuena Lehenengoa.
- Sozializazioaren eragileak bat etorri gero, sozializazioa sendoagoa.

## Hiztuna ere:

- Familian eta eskolan hizkuntza berean, hizkuntza barneratuagoa.
- Hala ere, eten gabe ikasi eta hizkuntza-premia berrietara egokitzen dira.

# Gizarte Denbora eta Bizitza-zikloa

## Kontzeptua:

- Elkarrekintza-eredu guztiak denboran daude kokatuta. (Giddens, 1979)
- Denbora gure izaeraren ezinbesteko dimentsioa da norberaren bizitzako alderdi guztietan. (Adam, 1990)
- Ikuspegi makro-, mezzo- edo mikro-sozialetik, gizarte gertaera guztiak denborak kateatzen ditu (Sztompka, ).

## Hipotesia (Iurrebaso, 2012):

### Euskararen “bizitza-zikloa”:

1. Haurrak dira euskaldunenak ezagutzen eta erabileran.
2. Nerabezaroan, hizkuntza-ohiturak erdaldundu egiten dituzte askok.
3. Urteak aurrera egin ahala, euskararen erabilera berreskuratu egiten dutela poliki-poliki hainbat gaztek.
4. Helduaroan aurrera egin ahala, haurrei “hizkuntza transmisioa” ustez beteta, berriro ere erdarara jotzeko ohitura indarra hasten da.

# Sozializazioa eta hizkuntza-portaera


## Emaitzak:

- LMH4n eskolak nolabaiteko autonomia gizartearekiko.
- DBH2n gizartearekiko lotura estuagoa eta erabilera baxuagoa.

## Hipotesia:

- Ikasle gazteagoetatik helduagoetara konbergentziarako joera gizarteko hizkuntza-eredu nagusiekiko.

LMH4: eskolako giro autonomoagoa



# Sozializazioa eta hizkuntza-portaera


## Emaitzak:

- Gune euskaldunenetan:
  - DBH2ko ikasleen artean euskarazko erabilera nagusi.
  - Alde txikia LMH4tik DBH2ra, beste zonaldeetan ez bezala.

## Ondorioa:

- Adinak berez ez dakar aldaketarik, baizik eta adinaren arabeko sozializazio mota ezberdinek.

LMH4n zein DBH2n: eskola eta gizartea norabide berean



# Sozializazioa eta hizkuntza-portaera

## **Emaizak:**

- D ereduan eta lehen hizkuntza erdararen bat (gaztelania edo beste hizkuntza bat):
  - Beste hizkuntza bat dutenek euskaraz zertxobait gehiago, batez beste, gaztelania soilik dutenekin alderatuz.
  - Beste hizkuntza bat dutenengan gehiago dira, erlatiboki, dena euskaraz egiten dutenak –ia 10 puntuz- gaztelania dutenek baino.
  - Erdararen erabileran ere joera bera, baina alde txikiagoa.

## **Hipotesia:**

- Beste hizkuntzadun etorkina errazago hurbildu euskarara, gaztelania duten bertakoek edo etorkinek baino.

# Sozializazioa eta hizkuntza-portaera

## **Emaizak:**

- Beste hizkuntza bat dutenek proportzio handiagoetan:
  - Ikasleak eta beraien familiak kanpotarrak.
  - Maila sozioekonomiko baxukoa.
  - Euskaraz erraztasun handiagoa gaztelaniaz baino.
  - Etxean euskaraz egitea erdaraz beste edo gehiago.
  - Euskara eskolaz kanpoko jardueretan.
  - Gune euskaldunenetan bizi.

## **Hipotesia:**

- Euskararako aldekoagoa den gizarte (eta familia) giro batean bizitzean datza joera horren zergatia.

# Boterea eta hizkuntza-portaera

## Kontzeptua:

- Botere-harremanak:

*“el modo en que ciertas acciones pueden estructurar el campo de otras acciones posibles” (Foucault, 1998)*

- Botere-harreman asimetrikoa:

-Gizarte jakin bateko indar-harreman mota eta egoera estrategikoa.

-Horren ondorioz, botere-harremanak non-nahi daude.

-Gizakia harreman horien menpe dago, ezinbestez.

## Hizkuntzan ere:

- Botere-harreman asimetrikoen ondorioz, boteredunak hizkuntza-erabilera ezartzen die bere solaskideei.


# Boterea eta hizkuntza-portaera

## Emaizak:

- Herriko euskaldunen proportzioak:
  - Eragiten du ikasleen arteko erabileran: LMH4n eta DBH2n.
  - Baina, irakasleekiko erabileran ez dago alde handirik: hiru zonaldeetan eta bi ikasmailetan euskarazko elkarrizketak nagusi.
  - Salbuespena: Gune erdalduneko DBH2n.

## Hipotesia:

- Irakasleak hizkuntza ezartzen die ikasleei.
- Gizartea eta Boterea kontrajarrita, gizartea nagusi.



# Sozializazioa: ez-determinatzaile

## Sozializazioan:

- Sozializazio eredu ezberdinen eragina.
- Gizarteko eta bere belaunaldiko hautua.
- Inolaz ez kopia zurrun eta saihestezinik.


## Hizkuntza-sozializazioa:

- Gizarteak hiztunari zenbait eredu eskaini.
- Ez bakarra.

## Emaitzak:

→ Hezkuntzatik kanpo, haur eta gazteek helduek eta adinezkoek baino gehiago erabili.

→ Zergatik, baina...?



# Sozializazioa: ez-determinatzaile

## Kontzeptua:

Etorkizuna ez dago sozializazioak zurrunki ezarrita:

→ Ikuspegi konstruktibista: gizakia gizartea aldatzeko gai.

## Adibidez:

- Hizkuntzaren corpus-a denboran zehar aldatu.
- Euskaldun petoek euskara baztertu, modernitatera egokitzeko.
- Euskaldunberriek euskarari eutsi, lehen eta bigarren sozializazioaren kontra.
- Ikasleek familian, eskolan, herrian..., hizkuntza-baldintza berdinak, eta portaera ezberdina.

# Plangintza eta ebaluazioa

## Kontzeptua:

*“Es raro que la planificación lingüística surta efecto la primera vez que se lleva a cabo. Es posible que, a la hora de poner en práctica una decisión, los planificadores deban realizar varias tentativas...”* (Cooper, 1997)

## Galderak geure buruari:

- Zergatik espero teoriaz kontrako emaitzak?
- Zergatik lortu emaitza on-onak lehenengo ahaleginean?
- Balioespen edo ebaluazioa?
- Etengabeko Hobekuntza Eredua?


# Etengabeko Hobekuntza Eredua: PDCA

## 1. Planifikatu:

- Arazoak eta zergatiak identifikatu.
- Irtenbidea planifikatu.

## 2. Egin:

Planifikatutakoa egin.



## 4. Doitu:

- Plangintza doitu.

## 3. Ebaluatu:

Emaitzak egiaztatu.

# Plangintza doitzeko zenbait erreferente

- Eskolak bakarrik ezin du euskara salbatu:

*“Gaur egun gizartean eragitea eta emaitza positiboak lortzea ezinezkoa da, modu isolatuan jardunez gero.*

*Erakundeak, ekonomiak eta gizarte osoak gero eta elkarri lotuago dauden honetan, gure ekintzek beste zenbait ekintzatan eragina sortzen dute, eta beste batzuen jasotzen...” (Senge, 2003)*

- Baina eskolan ere badago zer hobetu.

## **Emaitzak**

- LMH4 zein DBH2 pisu handienetako aldagaiak:
  - Eskolaz kanpoko jardueren hizkuntza.
  - Irakasleen erabilera beraien artean.

# Azken balantzea

- Hara, “Pernandoren egiak”!
- Bai, baina funtsa zientifiko sendotik abiatua.
- Ezagutza mota ezberdinak daude; adibidez:
  - Intuizioa.
  - Tradizioa.
  - Teologiko eta erlijiosoa.
  - Zientifikoa.

# Azken balantzea

- Hara, “Pernandoren egiak” !
- Bai, baina:
  - Oinarri sendokoa eta, hartara, oso emaitza fidagarriak.
  - Ekarpen berria Euskal Soziolinguistikaren ezagutzarako.
  - Ikuspegi konstruktibista ikasle eta irakasle da eskolako emaitzetan eragiten duela.
  - Erabileraren inguruko gorabeherak hain modu zehatzean ezagututa, errazagoa euskararako aukera berriak zabaltzea.
  - Ez-ohiko elkarlana, ahaleginen metaketa eta efizientzia bilatzea: Hezkuntza Saila + ISEI-IVEI + Soziolinguistika Klusterra.

**Eskerrik asko!**

## Ondorioa

- Kontuan hartu beharrekoak emaitzak ebaluatu eta plangintza doitzean:
  - Eskolako eta ingurumariko baldintzak lantzea.
  - Elkarlana, ohiko praktika bihurtzea.